

Etxean kontu kantari

Kuku miku, santaliku

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

Kuku miku, santaliku
txoriak umeak egin ditu.
Non?
Haritzaren adarrean.
Kaka Kattalinen bizkarrean.

Nola jolastu: Kili-kiliak egin atzamarra puntaz, hasieran poliki, gorputz osoa laztanduz, bukaerak azkar-azkar ... behin eta berriz.

Zapi zuri atzetik

Zubizarreta I. (2010). *Sasi Guztien Gaietik*. Galtzagorri elkarte.

Zapi zuri atzetik,
Kris kras.
Begiak itxita,
Kris kras.
Gora begira,
Izarrak jausten dira.
Behera begira,
Marigorringoak jausten dira.
Lotara, lotara,
Zapia jaitsiko da.
–Prest?
–Bai.
–Kuku!

Nola: Lurrean eta korroan eserita. Bulea, zapi bat eskuetan, beste guztien atzetik pasako da. Halako batean, zapia utziko du jokalaria baten atzean, baina, disimuluan, jarraituko du bere ibilaldiarekin zapia atzean duena konturatu arte. Konturatzean, zapia eskuan hartu eta aurrekoa harrapatzen saiatuko da.

Munagurengo laminak

Zubizarreta I. (2010). *Sasi Guztien Gaietik*. Galtzagorri elkarte.

Munaguren deritzon etxe zabal bat ageri da gaintxo baten ondoan. Etxearen aurrean, ur garbiez betetako osin bat dago, Lamina-putzu esaten diote denek. Erdi erdian, sahats txiki batek kanporatzen ditu adarrak eta haietan, sarri, laminaren bat edo beste egoten omen zen, ileak orraztu ta orraztu, kantatu eta eguzkitan berotzen ziren bitartean. Baina baten bat osin haren ondora agertzen zenean, laminak sahats adarretatik salto egin eta uretan sartuz ezkututzen ziren.

Sahats haren adarretan, izarak esekita edukitzen zituzten lamina txiki haiek, lixiba egin ondoren, lehortu bitartean. Zuri-zuriak ziren laminen izarak, urrezko hariez brodatuak, ezin politagoak. Munagurengo andrea haiei begira-begira egoten zen, inbidiatan. Bere ohean ipintzeko nahi zuen haietako bat, kosta lain kosta. Behin, lamina txiki batek eseki zuen bere izarra, eta hura lehortu bitartean, eguzkiari begira jarri zen ezerekin ere konturatu gabe. Munagurengo andre hau isilka ta misilka inguratu eta izarra ostu zion ez bat eta ez bi.

Lamina konturatu zenean, deitu zion bere ahizpa guztiei, eta denetan zaharrenak erabaki zuen zer egin.

Gauetz, ehunka lamina elkartu ziren, baserriaren horma inguruetan. Atea jo ta jo, kantuka eta jendeari hoska hasi ziren ordu luzeetan, barrukoei lo egiten uzten ez zietela.

Denak ikaratuta esnatu zirenean, lamina txiki hura deiadarka hasi zen:

– Munagurengo atso bandera, Ekarri egidan nire ondra-izarra.

Hurrengo gau batzuetan ere berdin egin zuten laminek; ate-hotsak eta izarra-eskea. Halako batean, etxekoandreak bueltatu zion izarra laminari.

Orduan laminak pozik, orro antzeko bat eginez esan zuen:

–Ez da etxe honetan lihoa faltako sekula sekularean. – Eta hala gertatu zen.

Helduek behin eta berriz entzun ipuin hau, norberak bere hitzekin kontatu, eta haurrak ipuina ulertzen duenarekin batera, entzutea proposatu, ea gustatzen zaien.